



Bidebieta

Jasonebasoko obrak hasi dira

Joan den astean Jasonebaso futbol zelaia berritzeko lanak hasi ziren. Hartxintxarraren orde, belar artifiziala jarriko dute zelaietan, eta aldagelak berriak eta harmailak eta aparkalekua egingo dituzte.

Intxaurren, Herrera, Martutene... Donostiako zenbait auzotako futbol zelaietan hartxintxarra kendu eta belar artifiziala jarri dute azken urteetan. Oraingoan Jasonebasoren txanda da. Hala ere, belar artifiziala jartzeaz gain, beste lan batzuk ere egingo dituzte. Batetik, zelaia bera handituko dute; gaur egun 95 metro luze eta 55 metro zabal da eta berritze lanak egin ondoren, 100 metro luze eta 60 metro zabal izango da. Bestetik, errepedetik gertuen dagoen atearen atzealdean aldage-


lak, taberna, motor, bizikleta eta autoentzako aparkalekua eta 150 bat lagunentzako harmailak egingo dituzte. Orain arte, Jasonebasoan, ez da ez harmailarik ezta aparkalekurik izan (bazegoen autoz edo motorrez sartzerik, baina ez, ordea, ibilgailuak uzteko propio egokitutako gunerik).

Bi sarrera

Berrikuntza lanak bukatzerakoan, Jasonebasok bi sarrera izango ditu: bata oinezkoentzat, egungoa dagoen leku inguruan, eta bestea, ibilgailuentzat, La Asuncion ikastetxetik gertu. Nabarmentzekoa da, halaber, errepedearen eta


Jasonebasoren arteko horma bota egingo dutela.

Aurreikusitako epeak betez gero, harmailak, aldagelak eta aparkalekua abuztu hasieran amaituko dituzte. Abuztuaz, azkenik, belar artifiziala jarriko dute, denboraldi hasierarako zelaia prest egon dadin.



Lur azpiko zaborrontziak

Udala lur azpiko bi zaborrontzi jarri ari da Osasun Etxearen aurrean. Duela hilabete inguru, biltokiontzako zuloa egokitzen hasi ziren eta egunotan zuloa estaltzen eta lur gaineko ontziak jartzen ari dira.



Haur Txokoa itxita

Martxoa erdialdean Mendiola ikastetxearen ondoko tutu bat lehertu zen eta matxurak kalteak eragin zituen ikastetxearen behealdean, Haur Txokoa, hain zuzen. Egunotan tutueria berriren ari dira eta beraz, Haur Txokoa itxita egongo da hilaren 28a arte.



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza